

Garapen-proiektu eta -programetan parte hartzeko eredu eraldatzaileak eztabaidatzeko ildoak

Unai Villalba

**EHUko Ekonomia Aplikatua I Sailean ikertzailea
praktiketan Eusko Jaurlaritzak ordaindua**

Hasteko, parte-hartzearen izaera anbiguoari dagokion kezka bat azaltzen da testuan; izan ere, parte-hartzeak ezarritako botereen eskupeko kooptaziorako zein gizarte-eraldaketarako eta gizarte-jabekuntza edo enpoderamendurako balio dezakeenez, tarteko egoera asko suertatu daitezke. Eredu eraldatzaile bat lortzeko lehenengo pausoa erreferente arauemaile eraldatzaile bat finkatzea litzateke, eta horretarako proposatzen da giza garapen, garapen jasangarri eta enpoderamenduaren teorien hainbat elementutan oinarritzea. Ondoren, testuaren zati handienak izaera hori beteko lukeen parte-hartzearen ezaugarriak identifikatzeari ekingo dio: parte-hartzea bitarteko edo helburu gisa ikustea; botere eta enpoderamenduaren natura eta inplikazioak; parte hartzeko espazioak eta eskalak; autogestio maila; prozesu parte-hartzaileetako eredu erabakitzaileen forma; parte-hartzearen edukiak eta denborak; subjektu parte-hartzaileak; eta azkenik, prozesu horien emaitzak eta eraginkortasun maila.

The text first is concerned on the ambiguity of participation, that is, the possibility, on the one side to use it for the cooptation of participants by the established power, and on the other side, for the empowerment and transformative purposes, while there can be a range of middle positions. To reach a transformative participatory pattern the first step is to choose a normative transformative reference. In this case, it is said that some elements of the human development, sustainable development and empowerment theories are useful. Then, the major part of the text is dedicated to identify the characteristics of this kind of participation: to consider the participation like a mean or an end; considerations about the nature of power and empowerment; spaces and scale for participation; self-management level; the form of decision-taking, the contents and the time in these processes; and finally, who are the subjects of the participation and which are the results and efficiency degree.

La verdadera revolución no puede temer a las masas, a su expresividad, a su participación efectiva en el poder. No puede negarlas. No puede dejar de rendirles cuenta.

...Y es precisamente cuando a las grandes mayorías se les prohíbe el derecho de participar como sujetos de la historia que éstas se encuentran dominadas y alienadas. El intento de sobrepasar el estado de objetos hacia el de sujetos –que conforma el objetivo verdadero de la revolución- no puede prescindir ni de la acción de las masas que incide en la realidad que debe transformarse ni de su reflexión.

Paulo Freire. Pedagogía del oprimido

1. Parte-hartzeren kontzeptuaren berezko anbiguitasuna¹

Gaur egun, gizartearen esparru anitzetan ugariak dira jende arruntaren edo interes-taldeen parte-hartzearen aldeko ideiak eta mota desberdinetako saiakerak. Duda barik esan genezake, beraz, parte-hartzearen erretorika modan egon dela azken hamarkadan politikan edo ekonomian aritzen diren teknikari edo agintarien ahotan. Hitz beraren erabilera orokortzeak, ordea, ez du esan nahi fenomeno berberaz ari garenik une oro; izan ere, moda horren atzean, helburu, interes eta praktika desberdinak, eta batzuetan kontrajarriak, ezkututzen baitira². Hots, parte-hartzea ez da gauza bera batzuentzat edo besteentzat, ez da helburu berekin erabiltzen, eta, ondorioz, antzeko diskurtsoen baitan oso egitate desberdinak aurki ditzakegu.

Testu honen helburua ez da aniztasun horrek eragindako nahasketa maila konponduko lukeen parte-hartzearen definizio unibertsal bat ematea, baizik eta esanahi, praktika eta helburu desberdinek irudikatzen duten errealtate konplexu horren barruan kokatzeko irizpideak eskaintzea. Lan horretan hasteko, ordea, gure ikerketaren objektu den fenomenoaren definizio bat ematea erabilgarria izan daiteke, eta, bide batez, bilatzen den garapeneko parte-hartze eraldatzailearen eredu horretatik gertu kokatzen den definizio bat erakusten dugu orain:

Prozesu bat da zeinean garapen-proiektu, -programa edo -politika batean bidezko interesak dituzten komunitateak edo sektore sozialak —aurretiaz bazterturikoak bereziki— inplikaturik dauden ekimen horietan eragiteko erabakiak hartzeko edo baliabideak kudeatzeko, nor bere garapen propioaren aktore bihurtuta (Perez de Armiño, 2000).

Emandako definizioan, jada, analisirako elementu eta informazio asko pilatzen zaizkigu, baina testuaren kapitulu honi izena ematen dion anbiguitasuna zer den errazago azaltzeko, horietariko hiru baino ez ditugu oinarritzat hartuko: “eragitea”, “erabaki-hartzea”, eta “kudeaketa”. Hiru kontzeptuok prozesu batean ekitearen seinale dira, baina ez dute pauso horien noranzkorik azaltzen. Eta, beraz, garapeneko parte-hartzearen anbiguitasuna horrela defini dezakegu: komunitate

1. Testu hau 2007ko otsailean HEGOA institutoak “Giza garapenaren erronka. Beste Globalizazio baterako tokian tokiko proposamenak” izenburupean antolatutako kongresuan autoreak aurkeztutako “Condiciones para una participación emancipadora en el desarrollo” lanaren berrikuspen eta moldaketa bat da.

2. Giza zientzietan kontzeptu askoren azalpen eta erabileran oinarritzko borroka semantiko-ideologikoa gertatzea oso arrunta da. Hala gertatzen da parte-hartzearen familia bereko hurrengo hitzekin: kapital soziala, gizarte zibila, gobernantza, deszentralizazioa, enpoderamendua...

edo giza taldeen garapeneko parte-hartzeak balio dezake, batetik, komunitate edo giza talde horiek aldaketa barik dirauen sisteman barneratzeke (bazterketa-sortzaile den sisteman, hain zuzen), edo balio dezake, bestetik, gizartea eraldatzeko eta subjektu horien enpoderamendurako. Berezko anbiguotasun hori dela eta, azpimarratu nahiko nuke parte-hartzearen formak eta helburuak hein handi batean baldintzatuko dituen erreferente ideologikoa kontuan hartzearen garrantzia, parte-hartzearen definizio positibo berak erreferente normatibo bat eskatzen baitu (Dubois, 2000).

2. Anbiguotasuna ekiditeko erreferente normatiboa

Lan honen izenburuan zer motatako parte-hartzea bilatzen den aipatu da, eraldatzaileak diren ereduak hain zuzen. Bilaketa horretan ez da defendatuko zenbat eta parte-hartze gehiago izan, hobe delako ideiarik, ez da eskala kuantitatibo soil bat eskaini nahi, baizik eta sakoneko begirada kualitatibo bat. Zentzu horretan, eraldaketarako klabea ez da zenbat alditan dagoen erabakitzeko aukera, baizik eta biztanleek euren parte-hartzea definitzeko bitartekoak izatea ala ez (Kaufman, 1997). Ibilbide horretan lagundu ahal duten erreferente normatibo ugari aipa badaitezke ere, kasu honetan garapen-lankidetzarako izan dezaketen eragin eta onarpen orokortua dela eta, giza garapenaren eta garapen jasangarriaren teoriak jarriko ditugu gidari, hori bai, horiek ere zabalegiak direnez batzuetan, enpoderamendua ahalbidetzen duten neurri eta mugekin hartuta.

Giza garapena pertsonen aukera gehiago eskaintzen dien prozesu gisa ulertu behar da, zeinean pertsonen gaitasunak eta gaitasunen bitartez hautuak egiteko benetako aukerak ere zabaltzen diren, zentzu horretan, nabaria da ezen parte-hartzeak hasieratik jokatu behar duela paper garrantzitsua. Nazio Batuen Garapenerako Programaren (NBGP) lehen txosteneko hainbat pasartetan ere azaltzen da ezen pertsonen euren helburu eta ikuspegi propioak finkatzea, eta, emaitza materialez gain beraien komunitateetan jarduera ekonomiko, kultural eta politikoetan parte-hartze sentimendua izatea garapenaren berezko zati garrantzitsuak direla (NBGP, 1990). Zentzu berean 1993ko txostenak parte-hartzea honela deskribatzen du: «Jendeak estuki esku-hartzea beren bizitzetan eragina duten prozesu ekonomiko, kultural, sozial eta politikoetan... prozesu horien gaineko zuzeneko kontrol osoa edo zeharkako eta partziala izanik jardun dezakete... erabaki-hartzerako eta botererako sarbide konstantea izatea da ga-rrantzitsua» (NBGP, 1993). Gainera, esan ohi da parte-hartzea garapenerako instrumentua eta helburua dela aldi berean, eta, beraz, ez dela une jakin bakar bateko egitate isolatua, baizik eta etengabeko prozesua (ibid.).

Aipatutako bigarren erreferentzia, garapen jasangarria, honela definitu ohi da: gaur eguneko belaunaldien beharrak asetzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiek euren behar propioak ase ditzaten baldintzatu barik. Definizioan parte-hartzearen garrantzia zuzenean antzematen ez bada ere, garapen jasangarriaren inguruko nazioarteko hitzarmen askotan arreta eskaintzen zaio, bereziki ingurumenaren babesa inplikatzan duten helburuak lortzeko estrategiak inplementatzeko garrantzitsua delako hainbat puntu kritikotan pertsona eta talde ororen inplikazioa. Batetik ingurumenaren jasangarritasunak exijitzen dituen eraldaketengatik dator kezka, zeren egungo eredu nagusitik eredu jasangarri batera iraga-

teak eraldaketa ekonomiko, politiko-instituzional eta kultural handiak eragingo bailituzke eta, beraz, bide hori, botere publikoen eta gizartearen interes anitzen arteko birdoiketa etengabea eta ikasketa-prozesu jarraitua izango litzateke, zeina aktore ezberdinen parte-hartzearen bidez gauzatu ezean, ezinezkoa litzatekeen (Font eta Subirats, 2001). Bestetik, ildo beretik baina egiturazko taldeen arteko harremanetan bainoago jarrera mikroetan zentratuak, Olaizola eta Álvarez-ek (2003) diote ezen mundu jasangarri batek egungo eredu nagusian kokatzen den pertsona ba-koitzaren aldaketa eskatzen duela, ostera produkzio- eta kontsumo-ereduak alda daitezzen; horrek balio-aldaketa dakar eta, beraz, herritarren inplikazioa eta parte-hartzea premiazkoa da bizitza-ereduak aldatu ahal izateko. Testuinguru honetan gatazka suposatzen duen problematikaren definizioa zaila izaten da batzuetan, eta, ondorioz, tokiko komunitatearen inplikazioa garrantzitsua da, bai arazoa ondo ulertzeko, bai konponbide propioak identifikatu ahal izateko, eta bai erabakitako ekintzen eraginkortasuna bermatzeko (ibid.).

Argi dago, beraz, garapen jasangarriari dagozkion erabakiak ez direla hautu tekniko hutsak, zeren karga normatiboa duten indibiduo eta komunitateen lehentasunen gaineko balio-aukerak baitira, eta beraien arteko kostu, onura eta arriskuen banaketa suposatzen baitute (Meadowcroft, 2003); ondorioz, erabaki horietan parte hartzeak justizia-elementuak ere baditu. Zentzu horretan, garapen jasangarriak epe luzeko adostasuna eta konpromisoak bilatzen ditu, baina gerta daiteke hori beti posible ez izatea, eta, beraz, parte-hartzea izatea desberdintasunak, kontraesanak eta antagonismoak adierazteko bidea, eta, aldi berean, horiexek kudeatzeko modua (ibid.), epe motzeko akordioak epe luzeko helburuekin konbinatuz.

Bukatzeko, giza garapenak gaitasun eta aukeren etengabeko zabaltzearen itxura ematen badu ere, garapen jasangarriak interdependentziak eta mugak azpimarratzen dituela ematen du. Kontrapuntu hori da hain zuzen, enpoderamendua- ren ikuspegiarekin loturak jartzen lagunduko diguna, batetik, botere positiboak seinatzen baitira, potentzialitateak eskaintzen dituztenak, eta bestetik, negati- boak, murriztapenak eta baldintzak azalarazten dituztenak, eta biak dira kontuan hartzekoak giza eraldaketaren bidean.

3. Parte-hartze eraldatzailearen eztabaida-ildoak eta irizpideak

Aurreko ataletan argi ikusi dugu ezen parte-hartzeak erabilera kontrajarriak izan ditzakeela, eraldatzaileak ez diren helburuak ere bete ahal dituelako, eta egoera hori ekiditeko erreferente normatibo gisa erabiltzeko hainbat teoria proposatu ditugu. Orain, marko teoriko hori apur bat gehiago garatuko dugu, eta aurkeztuko ditugu parte hartzeko eredu eraldatzaileak sustatzeko bidean sakontasunez kontuan hartu beharreko hainbat eztabaida-ildo.

3.1. Parte-hartzea bitarteko edo helburu gisa

Parte-hartzearen zeinua eta izaera ebaluatzeko orduan, ohiko banaketa bat da ea parte-hartzea beste helburu baterako bitarteko edo instrumentu huts gisa ulertzen dugun edo berezko helburutzat hartzen dugun. Lehenengo kasuan, parte-hartzea teknika bat baino ez da beste askoren artekoa, hots, kasuaren arabera proiektu konkretu baten helburuak betetzeko eraginkorra izan badaiteke, hautatuko

dugun bitarteko bat. Bigarren kasuan, parte-hartzea garapen-prozesuaren ezinbesteko parte da: ez dago benetako garapenik, neurri batean behintzat, parte-hartzearen bidez ez bada. Lehenengoan, eraginkortasuna bilatzeko metodo eta tekniken multzo batez arituko ginateke; bigarrenean, ordea, garapen-beharrak asetzeko bidean metodologia politiko batez.

Hainbat autorek, banaketa honetatik abiatuta, parte-hartzea bilatzeko dauden interesen arabera sailkapenak proposatu dituzte; zentzu horretan, azpian aurkezten den taulan lau mailako banaketa egiten da: nominal edo funtzionala, instrumentala, ordezkatzaila edo galdeketazkoa, eta eraldatzailea.

Modua	Funtzioa	Goitik beherako interesak	Behetik gorako interesak	Parte-hartzaileak ikusteko forma
Funtzionala Nominala	Erakustea/ Agertzea	Legitimazioa	Barneraketa	Objektuak
Instrumentala	Bitartekoa	Eraginkortasuna	Kostu-murrizketa Ardurak banatzea	Bitartekoak
Ordezkatzaila Galdeketazkoa	Ordezkapena Ahotsa	Jasangarritasuna Informazio-kalitatea	Eragina/ Kontuak ematea	Aktoreak
Eraldatzailea	Bitartekoa/ Helburua	Enpoderamendua	Enpoderamendua	Agenteak

Iturria: White-k (1996) eta Cornwall-ek (2001) egindako tauletatik abiatutako batuketa.

1. taula. Parte-hartzerako interesak eta moduak.

Modu nominalean parte-hartzea proposatzen duten instituzioen helburua politika baten edo bere lanaren legitimazioa lortzea da, eta objektu diren parte-hartzaileen interesa zerrendetan agertzea baino ez da. Modu instrumentalean ere, lehenengo pausoak, gehienetan, instituzioek ematen dituzte beren ekintzen edo programen eraginkortasunak behar duelako, neurri batean edo bestean, beren zerbitzuak jasotzen dituztenen partaidetza. Kasu horretan, parte-hartzaileak eraginkortasuna lortzeko bitartekoak dira, baina beraiek programa publikoaren zerbitzu horren onuraren truke egiten dute. Maila ordezkatzailan, instituzioek, beren ekimenean eraginkortasuna ez ezik, behin sostengu publikoa kenduta, programa konkretu baten iraunkortasuna ere bilatzen dute, eta parte-hartzaileek programa horien atal gehienetan eragitea eta horien burutze-prozesuen gainbegiraketa bilatzen dute. Azkenik, maila eraldatzailean enpoderamendua bilatzen da bi aldetatik, bien arteko lan-sinergia bat gertatzen delarik.

Garrantzitsua da kontuan hartzea ezen modu eraldatzaileak adierazten duen helburu-ikuspegiak ez duela suposatzen parte-hartzearen balioa tresna gisa mespretxatzea, guztiz kontrakoa. Taulan proposatzen den molde eraldatzailean parte-hartzea aldi berean da tresna eta helburu, kontua da *tresna* hori erabiltzeko modua desberdina dela 2. edo 4. kasuan. Azken horretan, herriaren parte-hartzeak helburu gisa esan nahi du botere ekonomiko, politiko edo kulturala ez dagoela talde edo elite konkretu baten menpe (Kaufman, 1997). Bestalde, parte-hartzea eraldaketarako tresna moduan, aurretiaz baztertuta egon direnen ahotsa eta anto-

laketarako gaitasunak garatzeko bidea da, gehiengoak beren beharrak eta nahiak identifikatu, adierazi eta ase ditzan, arazo sozialak konpontzeko zuzenki lagunduz.

Azkenik, eta testu honen lan-esparrua den garapen-lankidetzarako kasuari dagokionez, Parfitt-ek (2004) dioenez, parte-hartzea bitarteko moduan ikusten den heinean, objektu diren komunitateen eta agentzia emaileen arteko botere-harremanak ez dira aldatzen. Parte-hartzea helburutzat hartzeak, ordea, emaileen eta hartzaileen arteko botere-harremanen aldaketa dagoela esan nahi du, zeren bigarrenak lehenengoekin dituzten bezerokeria-harremanak aldatzen baitira.

3.2. Boterea eta enpoderamendua

Parte-hartze eraldatzailea, nolabait, enpoderamendua sortzen duena dela definitu dugu. Baina horrek zehazki zer suposatzen duen jakiteko aurretiaz jakin behar dugu nola egikaritzen duen botereak. Boterea kontzeptu konplexua da, aldi berean, gaitasun bat, erlaziozko fenomeno bat eta egiturazko fenomeno bat izan baitaiteke. Berau hausnartzeko hiru eskola aurkeztuko ditugu ondoren (Nelson eta Wright, 1995).

Lehenik, boterea sistema itxi baten barruan ondasun eskas eta finitu bat bezala ikusten duten gatazkaren ikusmoldearen teorikoak daude. Kasu honetan boterea zero batura suposatzen duen jokia da, indibiduo edo talde batek izan dezakeen boterea ezin du beste batek aldi beran izan, batek irabazten duena besteen kontura da, eta horrexegatik banaketa gatazka gisa aurkezten da.

Bigarrenik, adostasunaren ikusmoldearen teorikoak daude, beraiek boterea etengabe heda daitekeela uste dute pertsonen abilezia balitz bezala, botereak gaitasun baten antza hartzen duelarik. Zentzu honetan indibiduo edo talde batek botere gehiago izateak ez du zertan beste baten kalterako izan, ez baitago hasierako botere-dotazio mugaturik, eta gizarteak botere gehiago sor baitezake helburu komunak bilatu eta legitimatzen dituen heinean.

Hirugarrenik, boterea bai gatazkazalea nola kontsentsuzalea izan daitekeela aldarrikatzen duten teorikoak daude. Hauen artean aukera bat zentzurik gabeko botere-eredua da, boterea ez da substantzia eta objektu konkretu bat, ezin gara horretaz jabetu ez eta berau pilatu, baizik eta soilik harreman bat gauzatzen deneko unean existitzen dela.

Boterea ulertzeko hiru ereduaren arteko eztabaida sakonetan galdu aurretik, guztiak kontuan hartu eta nolabaiteko teoria eklektiko bat osatuko dugu. Izan ere, boterea multidimentsionala eta dinamikoa baita, eta, beraz, testuinguruaren arabera aldakorra izan baitateke. Ikuspegi horretatik, aldi berean funtzionatzen egon ahal diren lau botere modu identifika ditzakegu:

- *Gaineko boterea*. Ondasun edo baliabide (material edo sinbolikoa) finitu eta eskas baten gaineko kontrola hartzea da. Baliabide hori eskasa denez, batek duena ezin du beste batek aldi berean disfrutatu, eta, horrela, boterearen gatazkaren ikusmoldearekin identifika dezakegu.
- *Egiteko boterea* edo *ahalmena*. Helburu konkretuak lortzeko gaitasun eta abilezien garapen gisa uler dezakegu. Talde desberdinek helburu komunak

bilatzen dituzten heinean etengabe handitu daiteke botere mota hau, eta, beraz, ikusmolde kontsentsuzalearekin identifika dezakegu.

- *Elkarren boterea* eta *barne-boterea*. Bi hauek lotuta egon daitezke norberaren kontzientzia hartzera zuzenduta dauden neurrian; lehenengoan, talde-dinamika eta helburu-bilaketa garrantzizkoa da, eta, bigarrenean, norberaren balioaren zentzua indartzea. Hauek ere ikusmolde kontsentsuzalearen baitan koka ditzakegu.

Aurreko hausnarketei jarraituz, jada enpoderamendua zer den definitzeko modu erraz bat dugu: lau botere mota horiek lortzen direneko prozesua. Eta botere-harremanen azterketa hau osotasunean egitea oso garrantzitsua da; izan ere, eskala sozioekonomiko eta politikoa azpian dauden horiek bertan jarraituko baitute, jarrera aktibo bat hartzen ez badugu hori ekiditeko, botere-harremanak autoberregiten baitira planteamendu bat parte-hartzailea edo demokratikoa izan arren (Connell, 1997), parte hartzeko abiapuntuak eta gaitasunak desberdinak baitira.

Bestetik, boterearen natura gatazkazalearen edo kontsentsuzalearen inguruko hausnarketatik abiatuta, enpoderamendu hori nola garatu behar den ulertzeko ideia garrantzitsuak atera ditzakegu. Alde batetik, gizarte batean dagoen boterearen batura aldakorra dela suposatzen badugu, eta uste badugu berau haz daitekeela baldin gizarteak bere osotasunean helburu komunei jarraitzen badie, orduan, aurretiaz baztertuta dauden pertsonen enpoderamendua gizartearen ordena sozial horren baitan gerta daiteke boteretsuenen boterean inongo kalterik edo murriztapenik suposatu barik (Mayo eta Graig, 1995). Baina beste alde batetik, boterea zero batura terminoan planteatzen badugu, batzuen enpoderamendua gatazkatsu bihurtzen da, horrek beste batzuen botere-galera suposatzen baitu.

Zentzu berdinean Mohan eta Stokke autoreek (2000) enpoderamendu kontzeptuaren bi erabilera mota aurkezten dituzte. Egungo ikuspegi neoliberal batetik, goitik beherako estrategia batez hitz egin daiteke, instituzioak eraginkorrakoak izan daitezen aurrez definituta dauden jende talde konkretuak garapen-prozesuan barneratzen direlarik. Ildo horretatik, enpoderamendua buruaskiagoa izatean datza, estatuaren zerbitzuen beharra murrizteari begira, estatuaren esku-hartzearen murrizketa-estrategia bati jarraiki. Neoliberalak beharrean ikuspegi erradikalago batetik abiatuta, beste mota bateko enpoderamendu bat bilatzen da, gizartearen mobilizazioa behetik gorako estrategia bat bezala planteatzen denean estatuaren eta merkatuaren interes hegemonikoei aurre egiteko. Boterea gatazka eta erlaziozko terminoetan ikusten denez, baztertutako giza taldeen enpoderamenduak erlazio politiko eta ekonomikoen egiturazko eraldaketa bat bilatzen du.

3.3. Parte hartzeko espazioak eta eskalak

Parte-hartzearen anbiguotasun ideologikoa onartzen badugu, errazago ulertuko dugu, orobat, ohikoa izatea bi familia motako adjektiboak erabiltzea espazio parte-hartzaileak definitzeko: espazio batzuk "sortuak, gonbidapenez, gidatuak, edo manipulatuak" dira, eta besteak, ordea, "espontaneoak, autonomoak, herritarrak, asmatuak" dira. Zentzu horretan Cornwall-en (2002) iritziz, badaude, batetik, soilik garapenean parte hartzeko diseinatu izan diren espazioak, beste batzuek parte

har dezaten sortuak izan baitira, eta, bestetik, organikoki azalera direnak, zeinak parte hartzen duten pertsona berberak asmatuak baitira.

Banaketa bat egin daiteke, beraz, “gonbidapenez” sortuak izan diren espazioen artean, gehienetan gobernuak edo instituzioek bultzatuak direnak gizartearen presio edo eskari bati erantzuteko premia; eta bestelako “espazio herritarren” artean, non jendea bere nahi propioz biltzen den gobernuaren politiken aurka egiteko, beraien zerbitzuak ekoizteko edo elkartasunerako eta elkarren arteko laguntzarako, nahiz eta bi espazioen arteko mugak errealitatean ez diren horren zehatzak hainbatetan (Cornwall, 2004).

Parte hartzeko espazioak nola, nork, zergatik eta zertarako sortzen edo betetzen diren jakitea funtsezkoa da beraz. Dena den, bi espazio mota hauen arteko muga ezin da zorrotzegia izan, bien arteko desberdintasuna ez baita soilik nork betetzen dituen, baizik eta bertan adosten diren estrategiek existitzen diren botere-egiturak desafiatzen dituzten ala ez (Miraftab, 2004); zentzu horretan talde berdinek barruan eta kanpoan aldi berean egotea erabaki dezakete.

Gainera, garapenez ari garenean, ez dago estrategia bakarra parte-hartzeari dagokionez, baizik eta askotariko espazioak denbora berean irekita, beraien arteko erlazio dinamiko bat dutelarik (Gaventa, 2004). Hala, espazioak etengabe irekitzen eta ixten ari dira, legitimotasun, erresistentzia, disidentzia, integrazio eta eraldaketa borroken bitartez; izan ere, espazio batzuetan boteretsuak direnek beste espazio batzuetan posizio bera ez izatea gerta daitekeelako.

Aldi berean espazio baten sorrerak eta bertan parte hartzeak balio dezake identitate eta interes kolektibo berriak sortzeko, errealitate soziala zeharka eta oharkabean aldatu daitekeelarik. Hots, parte hartzeko espazio batean murgiltzean kide bakoitzak aurretiaz izaera edo nortasun bat badu ere, hori alda daiteke prozesu parte-hartzailea aurrera doan heinean eta toki horren arauak onartzen diren heinean; hau hainbat giza mugimenduren instituzionalizazioaren adibidearekin garbi ikusten da.

Azkenik, espazioez hitz egiten badugu, eskalarekin loturiko kontuak ere aipa ditzakegu. Hau da, ea parte hartzeko espazioa maila lokalean, nazionalean edo internazionalen kokaturik dagoen, eta horren arabera gai batzuetan eragin daitekeen ala ez. Ezer gutxirako balio izango du tokiko mailan parte hartu ahal izateak, goragoko eskala batean hartutako erabakiak benetan badira erabakigarriak izango direnak.

3.4. Autogestioa

Aurreko eztabaida-ildoetatik zuzenean eratortzen den argudioa da autogestioaren aldarrikapena. Noski, ez da isolamenduaren eta tokiko elementuen goraipamen hutsala, baina autogestio maila batek eta horretarako nahiak egon behar du nahitaez, nagusiki ondoren aipatzen ditugun elkarri loturiko hiru azalpenengatik.

Lehenik, Rahnema-k (1993) planteatzen du ezen talde batek (agentzia emaile bat, kasu) beste talde bat (landa-inguruko jende txiroak osatutako elkarte bat, adibidez) enpoderatu dezakeela pentsatzen duenean, lehenak inplizituki onartzen du bigarrenak ez duela inongo boteririk, eta ez hori bakarrik, baizik eta lehenak

bigarrena enpoderatua izan dadin giltza baduela. Horrek, jakina, lehena nagusitasun-puntu batean uzten du, eta bigarrena mendeko. Kontua da horrelako mende-kotasun-egoeran aurkitzen diren gizarteak ez direla botere gabeak, gaitasun eta kontrol gabeak guk boterea planteatu dugun bezala, baizik eta beraiek beste elementu kulturaletan aurkitu daitekeen botere mota izan dezaketela.

Bigarrenik, galdetzea dago ea autogestio barik inongo enpoderamendurik sor daitekeen, norbera ez bada zeinek sortuko luke? Nola da posible kanpoko agentziek beren esku-hartzeen bitartez *egiteko boterea* sortzea, beraien *gaineko boterearen* mendeko diren giza talde horiengan? (Nelson eta Wright, 1995).

Hirugarren argudioa oso lotuta dago garapen parte-hartzaileak izan dezakeen arrisku batekin *bestearen* enpoderamendua bilatzen den heinean, bilaketa hori *gure* sopikuntza eta nahiaz zeharkatua egongo baita (Kapoor, 2005). Sopikuntza Iparraldeko gizartekook munduko ekonomia global kapitalistaren partaide onuradunak garelako, zeinak gure garapen-lankidetzak konpondu nahi dituen bazterketak sortzen dituen. Nahia, lankidetzan beste herrialdeetan sustatutako parte-hartze hau gure sistema politikoen akatsen konpondu gabeko gatazkaren translazio bat baino ezin izan daitekeelako.

Guztiagatik, ez dugu garapen-lankidetzarako berezko balioa zapuztu nahi, baina prozesu holistikoago bat bilatuko lukeen internazionalismo baten alde egingo genuke. Non toki guztietan, han eta hemen, garapenaren ikuspegi lineala hausten den neurri bereberetan eta prozesu parte-hartzaileen bitartez alda-keta koordinatu bat posible egiten den.

3.5. Eredu erabakitzaileak

Lehen aipatu dugu parte-hartzeaz dauden ikuspegiaren arteko bereizketa oso arrunta dela, berau bitarteko gisa edo helburu modura hartzen duten begiratzea, bada, parte-hartzaileen erabakitze-gaitasun mailari dagokion sailkapena ere zabalduenetariko bat da. Kasu honetan oinarritzko galdera da ea zer neurritan dagoen erabakien gaineko kontrola aktore desberdinen artean sakabanatua, bereziki aurretiaz baztertuta zeuden subjektuei erreparatuta. Zentzu horretan bost maila (Blas, 2006) aurkeztu ahal ditugu, kontrol gutxienetik gehiagora ordenatuta:

- i. Informazioa. Gorako edo beherako zentzuan joan daiteke, herritarrengandik instituzioetara edo alderantziz.
- ii. Kontsulta. Parte-hartzaileek euren iritzia adierazten dute, eta hori erabakia hartu behar dutenek kontuan hartzen dute.
- iii. Ko-erabakia. Parte-hartzaileak erabakitze-prozesuan bertan inplikaturik daude.
- iv. Erabakia. Parte-hartzaileek eurek zuzenean erabakitzen dute.
- v. Ko-kudeaketa. Parte-hartzaileek ez soilik erabakian, baizik eta kudeaketan eta inplementazioan ere ardurak dituzte.

Deskribatzen saiatzen ari garen ereduaren oinarrietako bat botere mota desberdinak lortzea bada, eta beraz erabakien eta ekintzen gaineko kontrola lortzea, garbi dago lehenengo bi mailak ez direla nahikoak eraldaketarako, eta, beraz, gehienbat 3.etik goragoko mailetara jo behar dugula.

Dena den, 1. eta 2. pausoak ematea beharrezkoa da, eta horietatik abiatuta, ostera, bestelako prozesuak sortu ahal dira, eta ez hori bakarrik, baizik eta maila horietan edozein prozesu parte-hartzailetan garrantzitsua den informazio-sormen eta -kudeaketaren auzia azaleratzen dela. Batetik ea tokiko informazioa kontuan hartzen den ikusi behar dugu, eta datuak eta horien ondorengo iritzi eta interpretazioak zeinek egiten dituen, ea parte-hartzaile berberak diren edo kanpoko teknikari bat den, finean, ea informazioaren sortze-prozesu osoa plurala den. Bestetik, informazio-kudeaketari begiratu beharko genioke, ez soilik bi zentzutan doan ikustea, baizik eta zertarako erabiltzen den eta zeinen eskutan dagoen.

Eredu erabakitzaileei dagokienez, bigarren kezka batek erabakiak hartzeko prozesuari begiratu dio, nola hartzen dira erabakiak? Hemen prozesu deliberatiboan inguruko hausnarketak egin behar dira: interesen osaera; erabakitzeko gehiengoak, adostasunera ailegatu beharrak, aniztasun eta pluraltasuna; botere, jakinduria eta hitz egiteko erraztasuna espazio desberdinetan... Hau ez da erraz konpontzen den debatea, edozein kasutan, klabea berau publikoa egitean datza, metodoa sekula ez da perfektua izango, baina bere onurak eta kalteak publikoak egin behar dira. Azkenik, erabakien izaera loteslea izatea edo ez, debate honetan bertan kabitzen da, eta ez hori bakarrik, baizik eta erabaki horien aplikazioa gauzatuko delako ziurtasuna eta hori bermatzeko kontu-argiketa mekanismoak erabiltzea.

3.6. Edukiak eta denbora

Parte-hartze esanguratsua bilatzen badugu, bistakoa da bertan hartzen diren erabakien edukiak gizarte-gailentasuna izan behar duela eta biztanleengan eragina duten gaiak izan behar dutela euren interesa pizteko. Prozesu parte-hartzaile bat modu hobezin batean diseinatua izan dena, irekia, justua eta barneratzailea dena, balio gutxikoa izango litzateke baldin eta bertatik eratortzen diren ekintzak eragin sozial txikikoak balira. Are gehiago, parte hartzen duten pertsonen ikusten badute euren lan bikainak ez duela ezertarako balio, edo sentitzen badute txikieria bat erabakitzeko zela, euren konpromisoa hurrengo prozesuetan arriskuan jartzen da. Zentzu horretan garrantzitsua da parte-hartzea hobestea eta ez besterik gabe kuantitatiboki maximizatzea.

Parte-hartzea aplikatu behar deneko uneei eta denborei dagokienez, antzeko problematika aurkezten zaigu, parte-hartzea gailentasunezkoa izan dadin berau prozesuaren barnean ahalik eta lasterren eman behar da, eta gainera nahikoa irau behar du. Garapen-lankidetzarako proiektu eta programez ari bagara, parte-hartzea hasieratik eta ohiko fase guztietan eman beharko litzateke, hau da, identifikazio edo diagnostikoan, formulazioan, burutzapenean eta ebaluazioan, eta horietako etapa bakoitzean testu honetan aurkezten diren irizpide guztiak aztertu behar dira eta erabakitzeko gaitasunak guztietan egon behar du.

Bestetik, parte-hartzea prozesu gisa ulertzea garrantzitsua da, eta, beraz, epe luzeko prozesu iteratibo gisa ulertu eta landu beharko genuke jendearen inplikazioa. Giza eraldaketarako edozein saiakerak epe luzekoa izan behar du, eta irauteko modukoa ere, proiektu edo programa bateko ziklotik askoz harago. Prozesua etengabea birsaiatzen eta gainbegiratu bada, jarrera horrek gaitasunak gehitzen eta kontu-ematea errazten lagunduko du gainera.

3.7. Subjektuak

Atal honetan mota askotako analisiak egiten dira, baina orain aspektu kritiko batzuk baino ez ditut azpimarratu nahi. Lehenik, giza talde baztertuen parte-hartze eraldatzailea premiazkoa dela onartu behar da, beraiek izan behar dute prozesu horren hastapenen helburu nagusia, izaera holistikoa nolabait ahaztu barik. Gerta daiteke, ordea, giza talde horien parte-hartzea bermatzeko aurretiazko pausoak eman behar izatea, hezkuntza eta gaitasun nahikoak lortzeari dagokionez, bestela, espazio parte-hartzailean botere-harremanak errepikatuko lirarteke eta.

Bigarren aspektu bat, barneraketa da, zentzu horretan zenbat eta jende gehiagok parte hartu hobea, edo zehatzago, zenbat eta gehiagok modu parekidean parte hartzeko aukera izan, askoz hobea. Izan ere, ezin dugu ahaztu, batetik, espazio batakiko mesfidantza dagoenean, autobazterketa, defentsarako eta eraldaketarako estrategia egokia izan daitekeela; eta, bestetik, akto publiko eta masiboek barneboterearen banaketak ezkutatzera jotzen dutela.

Subjektuen barneraketari lotuta, ordezkartzaren kontua doa, parte-hartzea zuzena edo zeharkakoa izan daitekeen eztabaidatu beharko litzateke kasuz kasu. Duda barik, parte-hartze zuzeneko uneak egon behar dira, baina hori beti ez da posible eskala handitzen doan heinean, eta, beraz, ordezkapena zuzena izan dadin teknika konkrituak bilatu behar dira, eta ez hori bakarrik, hemen berriro ere kontu-ematearen auzia funtsezkoa da.

Azkenik, subjektuetan zentratuta baina beste perspektiba batetik abiatuz, ezinbestekoa da berauen jarrera eta motibazio pertsonala aztertzea (Chambers, 1997). Metodologia parte-hartzaile txukun bat izan dezakegu, baina finean hortik aterako dena, parte-hartzaileen borondatearen esku dago beti.

3.8. Eraitzak eta eragingarritasuna

Orain artean aipatu diren eztabaida-ildo ia guztiek parte-hartze eredu trinko batera jotzen dute, eta hala ere funtsezkoa da gogoratzea ezen perspektiba eraldatzaileak parte-hartze bera tresna gisa onartzen duela, eta orobat espazio desberdinetan estrategia ezberdinak zilegi direla onartzen duela, eta horrexegatik komeni da aztertzea parte-hartzeak orokortu daitekeen mekanismo moduan duen bideragarritasuna. Gizarte konplexu batek oinarritzeko behar material asko ditu, eta gerta liteke horietatik gehiengoaren parte-hartze barneratzaile baten bitartez modurik eraginkorrenean ez betetzea. Zentzu horretan, Meadowcroft-ek (2003) baieztatzen du parte-hartze intentsiboena, zabalena, edo ugariena ez dela nahitaez parte-hartzerik hoberena, eta zalantzan jartzen ditu horrelako ebaluazio batek ezkutatzeko dituen dimentsio bakarrek balizkoak.

Ildo berean, Brett-ek (2003) dio ezen parte-hartzeak gehienetan huts egiten duela ekintza kolektiboa edo elkarlana zaila deneko testuinguruetan, eta, ondorioz, bakarrik arrakastatsua izango dela, inplikazio zuzenaz gain, kontu-emate on bat bilatzen duten akordio instituzionalen bitartez eragiten denean. Akordio horiek aldakorak izan daitezke eskaintzen den zerbitzuaren baldintza teknikoaren arabera, edota gizarte baten giza kapital eta kapital sozialaren arabera. Beraz, autore horren iritziz, ez luke zentzurik parte-hartzea maximotzeak, onurez aparte kostuak

baitaude, eta klabea litzateke berau ikuspegi zabalago baten barruan kokatzea non enpoderamendu sozialerako giltzarria kontu-ematea bera den.

4. Ondorioak

Parte-hartzearen izaera eraldatzailea sustatzeko lehengo baldintza bere anbigutasuna onartzea da. Ezin da pentsatu parte-hartzea edonola aplikatzea ahalik eta kasu gehienetan onuragarria denik berez, aukeratutako garapen-paradigma edo erreferentearen helburu gisa gizarte-eraldaketa hartzen bada behintzat.

Parte-hartzea eraldatzailea izan dadin eztabaida-ildo batzuk proposatu dira beraz, zortzi ataletan banatuak. Hasierako batzuek meta-maila batean, diskurtsoaren ikuspegiak eta ideologia-abiapuntuak aztertzeke balio dute (bitartekoak eta helburuak, enpoderamendua); ondorengoek, meso-maila batean, egiturazko aspektuak aztertzen laguntzen dute (espazioak eta eskalak, autogestioa, eredu erabakitzailak); eta azkenik, mikro-mailan, prozesu konkretuen funtzionamenduaren aspektuak orientatzeko eztabaida-ildoak luzatu ditugu (edukiak eta denborak, subjektuak eta eraginkortasuna).

Komeni da gogoratzea, ordea, eztabaida-ildo horiek ez direla modelo matema-tiko batean erabiliko genituzkeen baldintza beharrezko eta nahikoak bezalakoak. Batetik, hiru maila horien arteko banaketa didaktikoa delako erreala baino, hiru mailen arteko elementuak loturik baitaude, eta horrexegatik, aldagai esanguratsuak badira ere, beraien arteko koerlazioa dagoelako, eta zentzu horretan errepikakorrak izatea suerta daitekeelako. Bestetik, gizarte-eraldaketa fenomeno zabalegia delako baldintza sinple batzuen bidez neurtzeko, eta horiek ere nekez parte-hartzearen kalitatea neurtzeko balio dutelako. Dena den, bide horretan pauso txikia izatea espero da.

Bibliografia

- Blas, A. eta Ibarra P. (2006): "La participación: Estado de la cuestión", *Cuadernos de Trabajo de Hegoa*, **39**, Bilbao.
- Brett, E.A. (2003): "Participation and Accountability in Development Management", *The Journal of Development Studies*, 40. lib., **2**, 1-29.
- Chambers, R. (1997): *Whose Reality Counts? Putting the First Last*, London Intermediate Technology.
- Connell, D. (1997): "Participatory development: an approach sensitive to class and gender". *Development in Practice*, 7. lib., **3**, 248-259.
- Cornwall, A. eta Gaventa, J. (2001): "From Users and Choosers to Makers and Shapers: Repositioning Participation in Social Policy", *IDS Working Paper*, **127**.
- Cornwall, A. (2002): "Making spaces, changing places: situating participation in development", *IDS Working Paper*, **170**.
- , (2004): "New Democratic Spaces? The politics and dynamics of institutionalised participation", *IDS Bulletin*, 35. lib., **2**, 1-1.
- Dubois, A. (2000): "Equidad, Bienestar y Participación. Bases para construir un desarrollo alternativo. El debate sobre la cooperación al desarrollo del futuro", *Cuadernos de Trabajo de Hegoa*, **26**, Bilbao.

- Gaventa, J. (2004): "Towards participatory governance: assessing the transformative possibilities", in S. Hickey eta G. Mohan, *Participation: from tyranny to transformation? Exploring new approaches to participation in development*, Zed Books, London, 25-41.
- Font, N. eta Subirats, J. (2001): "La participación pública en los procesos de agenda 21 local", in J. Font, *Ciudadanos y decisiones públicas*, Editorial Ariel, Bartzelona, 185-200.
- Kapoor, I. (2005): "Participatory development, complicity and desire", *Third World Quarterly*, 26. lib., **8**, 1203-1220.
- Kaufman, M. eta Dilla Alfonso, H. (1997): *Community power and Grassroots democracy. The transformation of social life*, Zed books, Londres.
- Mayo, M. eta Craig, G. (1995): *Community participation and empowerment. A reader in participation and development*, Zed Books, Londres.
- Meadowcroft, J. (2003): "Participación y estrategias para el desarrollo sostenible", *Revista Instituciones y Desarrollo*, **14-15**, Institut Internacional de Governabilitat de Catalunya.
- Miraftab, F. (2004): Invited and Invented Spaces of Participation: Neoliberal Citizenship and Feminists' Expanded Notion of Politics, <<http://web.cortland.edu/wagadu/issue1/Miraftab.pdf>>.
- Mohan, G. eta Stokke, K. (2000): Participatory development and empowerment: the dangers of localism, *Third World Quarterly*, 21. lib., **2**, 247-268.
- Nazio Batuen Garapenerako Programa (NBGP): *Informe sobre Desarrollo Humano*.
- Nelson, N. eta Wright, S. (1995): "Participation and power", in S. Wright eta N. Nelson, *Power and participatory development: theory and practice*, ITDG Publishing, Londres, 1-18.
- Olaizola, I. eta Álvarez, N. (2003): "Participación en materia ambiental", in C. San Juan Guillén; J. Berenguer; J.A. Corraliza eta I. Olaizola, *Medioambiente y Participación: Una perspectiva desde la psicología ambiental y el derecho*, UPV, 109-145.
- Parfitt, T. (2004): "The ambiguity of participation: a qualified defence of participatory development", *Third World Quarterly*, 25. lib. **3**, 537-556.
- Perez de Armiño, K. (2000): *Diccionario de acción humanitaria y cooperación al desarrollo*, Hegoa, Icaria, Bilbao.
- Rahnema, M. (1993): "Participation", in Sachs, *The Development Dictionary*, Zed Books, London, 116-131.
- White, S. (1996): "Depoliticising development: the uses and abuses of participation", *Development in practice*, 6. lib., **1**, 6-15.

